

Amaia Lizarralde aktorea, telesailtako kirolaren mundua eta SkyShowtimeren Apples Never Fall (Un revés inesperado) telesailaren estreinaldia izango dira asteartean, CROSSOVER jaialdiaren programazioan

Asteartean, apirilak 23, Crossover jaialdia Tabakalerako zinema aretora lekualdatuko da. Lehenengo saioa 17:30ean hasiko da «Ikusle gonbidatua» atalarekin: Urtzi Urkizu kazetaria Amaia Lizarralde aktorearekin hizketan arituko da. Telesailen fenomenoari buruz hitz egingo dute bi ikuspuntutatik: interpretearenetik eta ikuslearenetik.

18:30ean, telesailek kirolari buruz eskaintzen duten ikuspegia izango da aztergai, Gaizka Izagirrek moderatutako hitzaldi batean. Hitzaldi horretan, Mikel Alonso futbolari ohiak eta Lur Errekondo El conquistador del fin del mundo eta Naufragoak saioen aurkezleak hartuko dute parte. Ted Lasso (Apple Tv+) edo Home Ground (Filmin) telesail ospetsuek, esaterako, futbolera hurbiltzen gaituzte, eta The Last Dance (Netfde) dokumentalak, berriz, saskibaloira. Baina egiazkoa al da telesail edo dokumental horiek kirolari buruz ematen duten ikuspegia? Zein dira fikzioak tratatzen asmatzen ez dituen alderdiak? Gonbidatuak galdera horiei erantzuten saiatuko dira.

20:00etan, Tabakalerako zinema aretoan, Crossover jaialdiaren edizio honetako lehen estreinaldiaren unea izango da: SkyShowtimeren eskutik Apples never fall (Un revés inesperado) eskainiko da. Misterio drama bat da, itxuraz perfektua den baina egiaz hainbat sekretu ezkututzen dituen eta familia bateko kide den emakume baten desagertpenari buruzkoa. Telesaileko protagonistak Sam Neill aktorea, Jurassic Park edo Peaky Blinders ekoizpenengatik ezaguna, eta Annette Benning dira. Azken hori lau aldiz izendatu da Oscar sarietan, eta duela gutxi aktore onenaren saria irabazi du Series Manía jaialdian, telesail honetan egindako lanagatik.

SkyShowtime plataformaren telesail honen estreinaldian parte hartuko dutenei telesailaren inspirazio iturri izan den Liane Moriartyren Un revés inesperado liburuaren ale bana emango zaie.

Atala proiektatu aurretik, Juan Sanguino idazle eta kazetariak Isabel Vázquez gidoilari eta irakaslearekin hitz egingo du interpretazioaren ofizioari buruz. Elkarrizketan, telesailtako lana eta zinemako karrera konbinatzen dituzten interpreteen azken urteetako aldaketak aztertuko dituzte.